



PASAPORTE DE HOMOLOGACION EAF-FVA

Los pasaportes de homologación de la EAF-FVA son documentos, realizados por el fabricante del vehículo o por un particular que ha realizado la preparación del vehículo, donde se recogen las características técnicas y componentes del vehículo. Además, estas, se pueden completar con las extensiones para competición que definen, por tanto, el vehículo al completo y sus actualizaciones. Estos pasaportes de homologación estarán impresos en color y cada pasaporte irá numerado.

El Pasaporte de Homologación se registrará por lo establecido en el Anexo J del CDI, por lo establecido en los reglamentos técnicos de los Campeonatos Vascos de la EAF-FVA y en los criterios seguidos por la Comisión Técnica de la EAF-FVA.

La obtención de dicho pasaporte otorgará a su titular la posibilidad de competir en los campeonatos vascos de Rallyes y Rallysprint dentro del Grupo y Clase que se considere por la Comisión Técnica de la EAF-FVA, en función de sus características técnicas o de prestaciones.

El pasaporte de homologación requerirá de una información, tanto gráfica como técnica, que deberá ser obtenida por la persona interesada y completada en el archivo que se facilitará al completarse la solicitud.

Para tramitar correctamente la solicitud, será necesario adjuntar la siguiente información por correo electrónico:

1. Al menos, los siguientes datos son imprescindibles para la tramitación de un pasaporte de homologación:

- Marca, Modelo y características del vehículo
- Datos completos del solicitante
- Copia de la licencia vasca en vigor

2. No se tramitará ninguna solicitud si no se han recibido alguno de los datos arriba mencionados.

Una vez analizada la información recibida, nos pondremos en contacto con el fin de proceder a la realización, si procede, del pasaporte.

3. Si un vehículo ya dispone de ficha de homologación, no se podrá expedir un pasaporte de homologación a dicho vehículo. Tampoco se podrá hacer una extensión de dicha ficha de homologación. En todo caso, la Comisión Técnica de la EAF-FVA podrá denegar la expedición de un pasaporte de homologación o retirar uno ya existente.

4. Un vehículo que ya cumple las características técnicas del reglamento técnico del campeonato, deberá registrarse por lo ya existente. Por lo tanto, no se podrá expedir un pasaporte de homologación al mismo.

5. Salvo excepciones, los vehículos que obtengan el pasaporte de homologación estarán encuadrados dentro de la clase 6.

6. Dichos vehículos deberán cumplir la tabla de pesos para Grupo A del anexo J en vigor.

PESO MINIMO

- La tabla de pesos en vacío que deberán cumplir los vehículos con pasaporte EAF-FVA será la siguiente:

Hasta 1000 cm ³	720 kg
Más de 1000 cm ³ a 1150 cm ³	790 kg
Más de 1150 cm ³ a 1400 cm ³	840 kg
Más de 1400 cm ³ a 1600 cm ³	920 kg
Más de 1600 cm ³ a 2000 cm ³	1.000 kg
Más de 2000 cm ³ a 2500 cm ³	1.080 kg
Más de 2500 cm ³ a 3000 cm ³	1.150 kg
Más de 3000 cm ³ a 3500 cm ³	1.230 kg
Más de 3500 cm ³ a 4000 cm ³	1.310 kg

- El Peso mínimo del vehículo en orden de marcha con el equipo a bordo debe ser +160 kg
- Limitación de la cilindrada es 4000cm³
- El número máximo de cilindros son 6
- Cilindrada nominal:

Para la obtención de la cilindrada en motores sobrealimentados el coeficiente a utilizar es 1,7 en motores de gasolina y 1,5 en motores Diesel.

Motores Wankel la capacidad cubica equivalente es 1,8 veces el volumen determinado.

7. Todos los vehículos sobrealimentados, deberán cumplir la siguiente normativa sobre bridas.

- Bridas:

Todos los vehículos sobrealimentados deberán estar equipados de una brida fijada a la carcasa del compresor. Todo el aire necesario para la alimentación del motor debe pasar a través de esta brida, que deberá respetar lo siguiente:

- El diámetro máximo interior de la brida es de 36 mm.
- Debe estar hecho de un solo material.
- Este diámetro debe mantenerse a lo largo de una distancia mínima de 3mm.
- Debe mantener las especificaciones de material e instalación del dibujo 254-4 del anexo J.

Si el vehículo está sobrealimentado por dos turbos (o compresores) cada turbo debe estar limitado por una brida 27mm.

8. Se podrán hacer extensiones o variantes, a un pasaporte de homologación ya existente.

9. El coste de este Pasaporte de Homologación será de 300,00 €, que deberán ser abonados en la cuenta de la Federación Vasca de Automovilismo, antes del comienzo de la elaboración de dicho Pasaporte.

10. Una vez finalizado el trámite, se dispone de un plazo máximo de 5 meses para finalizarlo.

EAF-FVA HOMOLOGAZIO-PASAPORTEA

EAF-FVA homologazio-pasaporteak ibilgailuaren fabrikatzaileak edo ibilgailua prestatu duen partikular batek egindako agiriak dira, eta ibilgailuaren ezaugarri teknikoak eta osagaiak jasotzen dituzte. Gainera, ibilgailu osoa eta haren eguneratzeak definitzen dituzten lehiaketetarako luzapenekin osa daitezke.. Homologazio pasaporteak koloretan inprimatuko dira eta pasaporte bakoitza zenbakituta egongo da.

Homologazio pasaportea Nazioarteko Kirol Kodea, J. eranskinean ezarritakoaren arabera araudituko da, EAF-FVA Euskal Txapelketetako araudi teknikoetan ezarritakoaren arabera eta EAF-FVA Batzorde Teknikoak jarraitutako irizpideen arabera.

Pasaporteak eskuratzeak aukera emango dio titularrari Euskadiko Rallye eta Rallysprint Txapelketetan lehiatzeko, EAF-FVA Batzorde Teknikoak bere ezaugarri teknikoen edo prestazioen arabera erabakitzen duen Talde eta Klasearen barruan.

Homologazio pasaporteak informazio grafikoa eta teknikoa eskatuko du. Interesdunak eskuratu beharko du eta eskabidea egiterakoan emanen den artxiboan, osatuko da.

Eskaera behar bezala tramitzatzeko, informazio hau erantsi beharko da posta elektronikoz:

1. Gutxienez, datu hauek ezinbestekoak dira homologazio-pasaporteak izapidetzeko:

- Ibilgailuaren marka, modeloa eta ezaugarriak
- Eskatzailearen datu guztiak
- Indarrean dagoen euskal lizentziaren kopia.

2. Ez da eskaerarik tramitatuko goian aipatutako daturen bat jaso ez bada.

Jasotako informazioa aztertu ondoren, harremanetan jarriko gara pasaporteak egiteko, hala badagokio.

3. Ibilgailu batek homologazio-fitxa badu, ezin izanen zaio homologazio-pasaporteak eman ibilgailu horri. Homologazio-fitxa hori ere ezin da luzatu. Nolanahi ere, EAF-FVA Batzorde Teknikoak homologazio pasaporteak ematea ukatu edo lehendik dagoena kendu ahal izango du.

4. Txapelketaren araudi teknikoaren ezaugarri teknikoak betetzen dituen ibilgailua, lehendik dagoenaren arabera arautuko da. Beraz, ezin izanen da homologazio pasaportetik egin.

5. Salbuespenak salbuespen, homologazio pasaporteak lortzen duten ibilgailuak 6. klasean sartuko dira.

6. Ibilgailu horiek indarra duen A taldeko J eranskineko pisuen taula bete beharko dute.

GUTXIENeko PISUA

- EAF-FVA pasaportearen duten ibilgailuek bete beharreko hutseko pisuen taula hau izango da:

1000 cm ³ arte	720 kg
1000 cm ³ tik gora 1150 cm ³ arte	790 kg
1150 cm ³ tik gora 1400 cm ³ arte	840 kg
1400 cm ³ tik gora 1600 cm ³ arte	920 kg
1600 cm ³ tik gora 2000 cm ³ arte	1.000 kg
2000 cm ³ tik gora 2500 cm ³ arte	1.080 kg
2500 cm ³ tik gora 3000 cm ³ arte	1.150 kg
3000 cm ³ tik gora 3500 cm ³ arte	1.230 kg
3500 cm ³ tik gora 4000 cm ³ arte	1.310 kg

- Ekipoa martxan dagoela, ibilgailuaren gutxieneko pisuak +160 kg izan behar du.
- Zilindradaren muga 4.000 cm³ da
- Zilindro-kopuru maximoa 6 da
- Zilindrada izendatua:

Gainelikatutako motorretan zilindrada lortzeko erabili beharreko koefizienteak 1,7 da gasolina-motorretan eta 1,5 diesel motorretan.

Wankel motorrek edukiera kubiko baliokidea, 1,8 aldiz zehaztutako bolumena izango da

7. Gainelikatutako ibilgailu guztiek bridei buruzko araudi hau bete beharko dute.

- Bridak:

Gainelikatutako ibilgailu guztiek konpresorearen karkasan finkatutako brida bat izan beharko dute. Motorra elikatzeko behar den aire guztia brida horretatik igaro behar da, eta baldintza hauek bete behar ditu:

-Bridaren barneko diametro maximoa 36 mm-koa da.

-Material bakar batez egin behar du.

-Diametro hori gutxienez 3 mm-ko distantzian mantendu behar da.

- 254-4 marrazkiko J eranskineko, materialaren eta instalazioaren zehaztapenei jarraitu behar du.

Ibilgailua bi turboz (edo konpresorez) gainelikatuta badago, turbo bakoitzak 27 mm-ko brida bat izan behar du.

8. Lehendik dagoen homologazio-pasaporte bati luzapenak edo aldaerak egin daitezke.

9. Homologazio-pasaportearen kostua 300,00 €-koa izango da, eta Euskadiko Automobilismo Federazioaren kontuan ordaindu egin beharko da hasi aurretik.

10. Tramitea bukatu ondoren, gehienez ere 5 hilabeteko epea dago bukatzeko.